



IRAILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN.....




alex silva



Jesusen Alabak

AGUR. 87 urte irakaskuntzan. Ez dira erraz betetzen. 1922an etorri ziren Jesusen Alabak Azpeitira eta irakaskuntzan lan handia egin dute. Zenbat haurrek eta gutako zenbatek jaso ditugu beraien klaseak? Azpeitia oso herri erlijiosoa izan da, baina urte gutxitan fedea murriztu dela dirudi. Edo agortu dela. Badoaz gure herritik. Lehenik Esklabak, iaz Karitatekoak eta, orain, Jesusen Alabak.



Lan eta lan!

UZTARRIA. Urteak ditu Uztarriak. Euri asko egin du denbora horretan. Beti lan txukuna eginez une zailak gainditu eta aurrera jarraitu du. Beti irabazi du herriaren bertasuna. Aurtengoa ez dela urte txarra izango dirudi. Lanean jarraitzeko ia 2.000 euro gehiago izango ditu aurten.



Berriro eskolara

BUELTAN. Oporretan aisialdiaz topera gozatu ondoren, lanera, eskolara edo egunerokora bueltatzeko unea da iraila. Ez da erraza izaten. Aldapa gora ikaragarria, ekonomikoki ere gogorra. Baina, haurrek erakusten digute nola hartu. Indarrez ekiten diote haiek ikasturte berriari.



ISB txapeldun

IRABAZLE. Martxa hartzen hasi dira saskibaloikoak. Aurrekoa denboraldi polita izan zuten. Ezpainetan ezitia jarri ziguten. Ia-ia mailaz igo ziren, baina azkenean ezin izan zuten. Orain hasi dutena denboraldi gogorra aurreikusten da. Baina, indartsu hasi dira Txakartegiren taldekoak. Dagoeneko ekarri digute herriarentzat saskibaloiko Euskal Kopa. Ilusioz jokatzen dutela dio Xubik, baita lortu ere.✘